

BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN EGOITZA BAKARRA ABANDON

1. Bilboko Eleizbarrutiak **eraikin berean batuko ditu** gaur egun **hamabi leku desbardinetan sakabanatuta dagozan** pastoral, kultura, hezkuntza, gizarte eta karidade arloko zerbitzuak.
2. *Murias Taldea* enpresa eraikitzaileagaz lortutako **akordioaren** eraginez, gaur egun Irakasle-eskola Unibersitarioa (BAM) hartzen dauan orubean eraikiko dan eraikin barriak, **BAM irakasle-eskolari eta bere hezkuntza-eskaintzari erantzun egokia** emongo deutso, oraingo ekipamentua **1960an eraiki zan-eta**. Obrek iraun daien denporaldian, **Eskolak behin-behineko kokapen** barria izango dau **Deustuko Unibersidadetik gertu, S. Pio X plazan (Ugasko bidea 1)** dagoan Plaza eraikinean.
3. Era berean, *Murias Taldea* enpresa eraikitzaileak, **akordioa lortu dau Mutualiagaz**, Gizarte Segurantzagaz lankidetzat dauan mutuagaz. Honi esker orube berean, Bizkaiko **beharginei arreteta emoteko ospitalik handiena** kokatuko da.
4. **Irakasle-eskola unibersitarioagaz** (BAM) batera, ondorengo honeek izango dira kokagune barrian: *Bizkaiko Eleizaren Histori Artxiboa*; eleizbarrutiko erakundeetako **liburutegien** fondoak; *Icaro* dokumentu-interpretazinarako zentroa; **eleizbarrutiko irratia (Bizkaia irratia eta Radio Popular-Herri Irratia)**; eleizbarrutiko ikastetxeen **Añoberos Fundazioa; Eleizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutua; kuria eta pastoral zerbitzu nagusiak**. Bertan egongo dira, baita be, *Labayru Fundazinoko* etnografia eta euskera sailak, **Lagungo Fundazioa, Jakinbide** eleizbarrutiko liburu-denda eta Bilboko eleizbarrutiko **Caritasen zerbitzu administratiboak**.
5. Eleizbarrutiko erakundeetako profesionalek, BAM irakasle-eskolako ikasle, irakasle eta beharginek eta **askotariko zerbitzuen** erabiltzaileek bat-egiteak, Bilbo uriaren erdigunean lehen mailako **kultura eta hezkuntza interesgunea** sortzeko **aukera** emoten dau.



6. Eraikinak barne hartuko ditu lur-arrasaren azpian, BAM irakasle-eskolaren **gimnasioa**, eleizbarrutiko **dokumentu-fondoak** eta hirigintza-arautegiak eskatutako **aparkalekuak**.
7. Eraikin-multzoan, Lersundi kalean, **erabilera publikoa** izango dauan arkupe estalia aurreikusten da.
8. Erabagi honegaz, Bilboko Eleizbarrutiak **hobeto** aprobetxatu gura ditu **bere baliabideak**, Eleizak Bizkaian egiten diharduan **gizarte egitekora fondo gehiago zuzentzeko** helburuagaz.

Bilbao, 2019-05-28